

ARNAS INFЕКZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINITZA **Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)**

2025-2026 denboraldia
(2025eko irailaren 29tik 2025ko irailaren 27ra)

48. astea (2025eko azaroaren 24tik 30era)


Gripe sindromearen diagnostikoek gora egiten jarraitzen dute, aurreko asteko beherakadaren ondoren. Bronkiolitis tasak gora egin du, atalase-epidemikoa gairidituz, eta COVID-19arena balio baxuetan mantentzen da.

- Lehen mailako arretako (LMA) sarean AIA tasa 437,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (385,7/100.000 aurreko astean).
- Lehen mailako arretan, gripe-sindromearen tasak gora egin du aste honetan. Bronkiolitisaren tasak gora egiten jarraitzen du eta COVID-19arena baxu mantentzen da.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 96 lagin jagoleen % 67,7 baieztatu da, 43 gripe-birus eta 6 ABS detektatu direlarik, baina ez SARS-CoV-2rik. 17 errinobirus ere detektatu dira.
- Osakidetzako ospitale-sarean, AIA larriaren tasa 16,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (13,0/100.000 aurreko astean).
- LMAko AIA tasak intentsitate maila baxuetan mantentzen dira, eta larrialdietako gripe sindromearena intentsitate ertaineko mailara igo da. LMAko bronkiolitisaren (<2 urte) tasak atalase-epidemikoa gairiditu du aste honetan, eta intentsitate baxuko mailan kokatzen da.
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 594 gripe-birus, 85 ABS eta 15 SARS-CoV-2 erregistratu dira.

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 437,6 kasukoa izan da (385,7/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 353,3/100.000 izan da Araban, 437,9/100.000 Bizkaian eta 476,2/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arreta-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 3637,6 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 1-4 eta 5-14 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 2278,1 eta 797,2 kasurekin, hurrenez hurren.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



AlAekin lotutako Prozesu Arin Automugatuaren (PAA, *Hotzeria arrunta* eta AlAren sintomaren bat duen *Sukarra*¹) zaintzaren helburua erizaintzako langileek artatzen dituzten prozesu horien bilakaera ikustea da. Aste honetan tasa 100.000 biztanleko 217,5 kasukoa izan da (178,5/100.000 aurreko astean).



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek gora egin dute aurreko astearekin alderatuta ESI batzuetan eta behera, besteetan.


AlAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESlaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE

ESI	Tasa 48. astea	Tasa 47. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	366,8	353,3	1,18 (1,08-1,30)
Arabar Errioxako ESI	1061,4	857,6	1,38 (0,95-1,99)
Barakaldo-Sestaoko ESI	343,2	338,5	0,94 (0,83-1,07)
Barrualde-Galdakaoko ESI	452,6	395,7	0,91 (0,84-0,98)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	468,6	444,4	0,98 (0,91-1,05)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	434,6	406,7	1,03 (0,93-1,14)
Uribeko ESI	394,3	360,3	1,11 (1,00-1,23)
Bidasoako ESI	452,1	309,6	1,14 (0,95-1,36)
Debararrenako ESI	498,6	426,2	1,12 (0,94-1,33)
Debagoienako ESI	412,4	283,7	0,94 (0,76-1,16)
Donostialdeako ESI	450,5	377,2	1,19 (1,10-1,29)
Goierri-Urola Garaiaiko ESI	520,1	386,4	1,17 (1,01-1,36)
Tolosaldeako ESI	489,5	403,0	0,95 (0,80-1,13)

¹ Informazio gehiagorako kontsultatu [AlAren jagoletzaren metodologia](#)

LMAn, gripe-sindromearen tasa 44,7 kasu 100.000 biztanleko balioraino igo da (36,1/100.000 aurreko astean). Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) gora egin du eta 516,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (328,4/100.000 aurreko astean), eta COVID-19arena 100.000 biztanleko 0,9 kasutan mantentzen da (1,0/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIAren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 96 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 66,7 baieztatu dira. 43 gripe-birus (29 A(H3) eta 14 A(H1)) eta 6 ABS atzeman dira, baina ez SARS-CoV-2rik. 17 errinobirus ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,
aste epidemiologikoaren arabera. 2025-2026, EAE



Gripe-birusaren positibotasuna altu mantentzen da % 44,8an (% 38,8 aurreko astean) eta ABSren positibotasuna % 6,3eraino igo da (% 4,5 aurreko astean). SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,0koa izan da (% 0,0 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 17,7koa izan da (% 10,4 aurreko astean).

Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2025-2026, EAE


	48. astea		47. astea		2025-2026 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	43	44,8	26	38,8	195	34,8
SARS-CoV-2	0	0,0	0	0,0	9	1,6
ABS	6	6,3	3	4,5	13	2,3
Metaneumobirus	0	0,0	0	0,0	0	0,0
Parainfluenza	1	1,0	1	1,5	15	2,7
Adenobirus	1	1,0	0	0,0	4	0,7
Errinobirus	17	17,7	7	10,4	138	24,6
Urtaroko CoV	2	2,1	2	3,0	12	2,1
Enterobirus	0	0,0	0	0,0	5	0,9

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean

Zaintza sindromikoa


AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik erartortzen direnak. AIAL tasa 16,0 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (13,0/100.000 aurreko astean), 16,0/100.000 gizonetan eta 16,1/100.000 emakumeetan.

AIAL tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE




Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena urte batetik beherakoen adin-taldean eman da 100.000 biztanleko 116,2 kasurekin, ondoren 64 urtetik gorakoen eta 1-4 urtekoen adin-taldeak kokatzen direlarik 100.000 biztanleko 44,0 eta 25,1 kasurekin, hurrenez hurren.

**AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**



Gripearen diagnostiko-kodeekin (J09-J11) erregistratutako ospitaleratzeen tasa 4,4koa izan da 100.000 biztanleko (3,2/100.000 aurreko astean), ABSren kodeekin (J12.1, J20.5 y J21.0) ospitaleratutakoena tasa 0,6koa 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean) eta COVID-19aren kodearekin (U07.1) ospitaleratutakoena 0,0 kasukoa 100.000 biztanleko (0,1/100.000 aurreko astean).

**Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE**




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi birokologikoen emaitzak erakusten dira. SARS-CoV-2aren positibotasuna % 0,4koa izan da (% 0,9 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasuna % 36,7ra igo da aste honetan (% 33,8 aurreko astean), eta ABSrena % 9,4raino igo da ere (% 8,9 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 16,4ra igo da (% 15,3 aurreko astean).

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, EAE

	48. astea		47. astea		2025-2026 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	279	0,4	218	0,9	2035	3,6
Influenza	289	36,7	222	33,8	1771	27,6
ABS	256	9,4	191	8,9	1603	4,4

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE




Atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak

Epidemia Mugikorren Metodoa (*Método de Epidemias Móviles*, MEM) ezarri da Euskadin arnas infekzio akutuek (AIA) zaintzeko, atalase epidemikoak eta intentsitate-mailak zenbatesteko. Horri esker, modu objektiboan identifika daitezke urtaroko epidemien hasiera eta amaiera, eta haien intentsitatea sailkatu.

Lehen mailako arretako AIAren zaintzari dagokionean, atalase epidemikoa 2025/40 astean gainditu zen eta gaur egun tasa intentsitate maila baxuan kokatzen da.


**AIaren epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta.
Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Gripe-sindromearen, ospitaleetako larrialdietatik ateratako datuek adierazten dute atalase epidemikoa 2025/42 astean gainditu zela. Aste honetan intentsitate maila ertainera igo da, goranzko joerarekin jarraituz.


**Gripearen epidemiaren intentsitatea larrialdietan serie historikoarekin alderatuta.
Osakidetzako ospitale-sarea. 2025-2026, CAE**



Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarrizko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Azkenik, lehen mailako arretako 2 urtetik beherako bronkiolitis diagnostikoei dagokionez, aste honetan atalase epidemikoa gainditu da, intentsitate maila baxuan kokatuz.

Bronkiolitisaren (<2 urte) epidemiaren intentsitatea serie historikoarekin alderatuta. Lehen mailako arretako sarea. 2025-2026, EAE




Intentsitatea serie historikoarekin alderatuta: ■ Oinarritzko egoera ■ Baxua ■ Ertaina ■ Altua ■ Oso altua

Arnas birusen detekzioak IMSn

Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 594 gripe-birus, 85 ABS eta 15 SARS-CoV-2 detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 594 gripe-birusetatik, 401 A motakoak izan dira, 125 A(H3), 67 A(H1)pdm09 eta bat B motakoak. 2025/40 astetik 2933 detekzio erregistratu dira, 2922 (% 99,6) A motakoak eta 11 (% 0,4) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1667 birusetatik, 989 (% 59,3) A(H3) eta 678 (% 40,7) A(H1)pdm09 izan dira.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2025-2026, EAE



Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2025eko abenduak 4

Zaintza Epidemiologikoa Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza